

# Haur garaiko kontuak

## ETNOLOGIA ETA DIALEKTOLOGIA LEHIAKETA - 2000.eko apirila

Transmisoreen izen-abizenak: Loreto Taberna eta Lorenzo Iparragirre.

Adina: 67 eta 72 urte.

Herria: Arantza, Urdingonborda baserria.

Gaia: Haur garaiko kontuak.

Oharra: Transkripzioan ahoskera eta hizkera errespetatu dugu.

### TRANSKRIPZIOA:

*Aurkezpena:* Kaixo, emen gaude Urdimorda baserrin ta Lorentxo ta Loretori imar diogu ta elkarritzeta bat yokuri buruz.

*Galdera:* Ze yokutan aritzen zinten?

*Lorenzo:* Yokuk itten gintun, ibiltzen giñen yostetan Perikomordako gtxain xelayin antxe ibiltzen ginan Ontsomordakuk ta gu re formatzen giñen bortz sei bat ta an ibiltzen ginan baleka, potebilka. Gero udan berotzen tzulikan goiko lepositura yuaten giñen freskatzera. An ibiltzen giñen urin ta ola pasatzen genun ...

*Galdera:* Ta zuek zertan aritzen zinten?

*Loreto:* Gu, gu aritzen giñen jostetan, batzutan, bertze batzutan elkarrekin joka. Ta Munitzkuk, Madalenkordakuk eta ... gu Lutzinkordakuk ibual zortzi bedetzi beden zaten giñen; kuadril gaitza biltzen giñen. Aritzen giñen yostetan, bueno, itxekuk siestara yuaten zirenin gu biltzen ginan denak, kuadril bat gaitza. Ya uain Arantza guziyin ezta aimertze umerik zanen. Alaxen aritzen ginan aritz batin bueltan, baleka. Bertze batzutan paratzen gintun pirlak; pirlatan aritzen giñen agitz ongi ta gero kartatan ere bai, seikurrin, puntin ta gero ori, bertze yoku ori, zer da? ... trukin. Musin ere bai pixkuat ez aimertze ez gunun aimertze enteintzen ori. Eta gero illunarrin tortzen ginan. Abu(do) xamar tortzia nai zaten zuten itxekuk, attak ta amak. Kar barra zatten gintun iturtikan ura, ezpaitzen urik zatten ordun eta ura aunitz biar tzen zertik azinda aunitz andikan bazkatarra zatten ziren urarekin. Ta ura karri, ura ekarri itturtik eta gero afaltzen gunun, aunitzan patat utsa, amatzik itten tzun ona. Gaztañak egosik edo errik, opil ta gazta eta oltzen zaten tzen. Gero arto xuritzko denbora baldin bazeñ aritzen ginan ordu batez arto xuritzen gottin denak, bueno, koxkornak e!, ttikiyak ez. Aurrik aundiskunak arto xuritzera attakin, amak afaria prestatu bitartio, Gero amak prestatzen zunin gu betti torri ta afaldu. Arrosariua aunitzan erreztzen gunun, bertze aunitzan igual ez, segun logalia nola gunun.

*Galdera:* Zein zen yoku oritan gustukuna?

*Loreto:* Kartatan aritzia ta gero baita ere bertze gauz bat zatten zen izugarri pollita, karnikoltan. Aritzen ginan, karnikoltan, ola neskak. Lau karnikol zatten ziren eta ekin pilot bat artu ta arrek franko poliki denbora pasatzen gunun. Ta karnikol orik zuek uain igual eztutuzue izautuko. Orik zatten dire beldotxen besutan uste dut e! Ek beldotxa iltzen zenin egosi exurrik ongi ongi eta kentzen genion exur ek ta gero pintatu ongi ongi esmalte gainko azkazalak pintatzeko esmalte polit oiekin denak difentik eta antxe aritzen giñen yostetan.

*Galdera:* Ta zuek ze yoku zuten gustukuna?

*Lorenzo:* Guk gustukuna... iganditan yoaten giñen Gaikordara. Gaikordan itten tzen libersiua, auzoko mutil ta neska guziak, denak, ordun yoaten zen igande arrasletan Gaikordara. Aundiak aritzen tziren pilotan. Zaten zen frontona bezala iña itxe paretari ta an aritzen tziren pilotan; gu, berriz, antxen dienak elkarrekin yostetan arraslin pasatzen gunun aitz ongi. Biltzen tzen aitz mutiko aunitz ta neskak ere bai, neskak kozkorra.

*Galdera:* Ze yostallu zintuzten ta ze tresnekin egíñak?

*Loreto:* Yostalluk zaten zen tiragoma bat. Bi goma koxkorkin, abarka zar bateri kentzen tzion attak pusuat, goma paska bat ta arekin artu arriya ta ezpazen ixilik egoten areri titzen gision arriya (.) itxera.

*Galdera:* Ta zuek ze yostallu zinttuzten?

*Lorenzo:* Guk yostalluk... an zatten tziren. Gaikordako ta Ximonmordako Nikolas ta orik iñak zatten tziren pirlak egurrakin ta antxen txandaka, antxe aritzen giñen. Gero zatten gunun bertze yoku bat ere, ar batin sos ttikiyekin. Arri bati titu ta sos ttikiya arrimtzen (zuna) ar baten barrenin ura beretzako. Antxen denbo pasatzen gunun.

*Galdera:* Nun aritzen tzinten yostetan?

*Loreto:* Gu aritzen giñen Muniltzko ariztan yostetan ta gero andikan denak bakotxa bere etxetara lasterka itxera yuan eta gero lanak egin bar zatten gintut. Koxkorra biaun goizin sua bizteko xotxak billu eta ola. Gaztañak billu re bai, batzutan. Aizegua baldin bazen gaztaña tortzen zen arboltik lurrera atari ixkin artan ta gero ura biltzen genun bolts batin ta ondoko egunin egosi ta yan. Edo ximaldu pixkoat eta erreeta, txartanin erre ta ikaragarri ona zatten ziren. Mallo zurazko bat, mallo batkin zanpatu, espezialak yatko.

*Galdera:* Ta zuek, nun aritzen zinten yostetan?

*Lorenzo:* Gu iganditan Gaikordan ta bertzela, berriz, libre giñenin, berriz, goiko leposituan ta emen Perikomordako gatxain xelayin ere bai, emen aritzen giñen.

*Galdera:* Zemant lagun aritzen zinten yostetan?

*Lorenzo:* Ba, zemant lagun?, zazpi-zortzi bat lagun ta igual amar ere bai.

*Galdera:* Ta zuek?

*Loreto:* Gu, ni enaiz oroitzen, miño, ba gu plantat kiñen lau itxikin igual hogei lagun. Errontkordan ere baziren umik eta Madalenkordan ere bai sail bat, Muniltzan bi aldik nola ziren ta Uxainkordan ere zatten ziren aurrik eta, bueno, Pottunkordakuk, berriz, ziren zartxiguk, ek egottertzien itxe leitikan begira gu nola yostatzen giñen.